

Susana Arregiren eta Jon Lizarralderen heriotzak argitu nahian

Xabier Lasa 2023ko apir 25a, 15:19



Arregiren eta Lizarralderen senideak eta lagunak, Pako Aristi idazlearekin batera

Susana Arregi ofatziarraren eta Jon Lizarralde andoaindarraren suizidioaren bertsiio ofiziala ezetzatzen duen *Irunberri, 1990: Arroiaren negarra* liburua aurkeztu zuten Donostian, joan den ostiralean. Pako Aristi da bere egilea, eta Irunberriko arroilan 1990eko ekainaren 25 eta 26an gertatutakoak argitzeko asmoz idatzti du.

Liburua Andoainean, Basteron datorren ostegunean, arratsaldeko 19:00etan aurkeztuko dute.

Hamaika ataletan banatuta dago 271 orrialde dituen liburua, argazki eta ilustrazio mordoia barne, eta erreportaje luze baten kazetaritza estiloan, nobela baten moduan irakurtzekotan, osatu du kontakizuna.

Atal horiek dira: "Tragedia baten lehen notak", "Bizi-hari mehe bat", "Gau iluna, gau luzea", "Heriotzak hautsitako bihotzak", "Nork hil du Susana?", "Posible baltiz bi aldiz hiltzea", "Operazio atzeratua", "Zuhaitzaren sustraia", "Aztarna mutuak", "Vogels Kijker", eta "Azken alegatua".

Mixelena kulturean egin zuten liburuaren aurkezpena, eta bertan, Erein argitaletxeko Uxue Razquin, ikerketan parte hartu duen Gure Bazterrak elkarteeko Ander Lizarralde, Egjari Zor Fundazioko Pilar Garaialde eta Pako Aristi idazlea izan ziren.

Horiekin batera izan ziren aurkezpenean, besteak beste, Txemi Gorostiza bi ETAKideren abokatu, Susana Arregi Maiztegiaren familiarrak, Ixiar Lizarralde Jon Lizarralderen arreba, 1990an Andoainean ikertzearen joxearen barmandiaran, eta Joxe Mari Urdanpilleta eta Niko Francisco Jon Lizarralderen lagunak.



Joxe Mari Urdanpilleta, Niko Francisco, Joxe Mari Barandiaran, Ixiar Lizarralde eta Pako Aristi

Corcuerearen bertsiio ofizialari, bestea kontrajari

Aristik, Donostiako aurkezpenean, liburuak gertakizunei buruz atera dituen ondorioak azaldu zituen. Horretarako, Corcuera Espainiako barne ministroak Irunberrikoa gertatu eta lau egunera Kongresuan egin zuen agerraldiari heldu zion: "kongresuan bertsiio ofiziala eman zuten. Bederatzi folioekin, 27 minututan, ezarria utzi zuten historia honi buruzko bertsiio ofiziala. Gaur arte ezagutzen zen bertsiio bakarra. Guk gauza berbera egingo dugu: erantzuneko diogu Corcuera, eta ikerkurriko ditut bederatzi folio, 27 minututan. Idatzit horrek dakar pixka bat liburuaren laburpena, tesia edo; izan ere, istorio hau konplexua da, hari asko dauzka, 20 ordu iraun zuen operazioa izan zen, sekula izan den luzeena. Orografikoki oso leku berezia da, isolatzea oso erraza, kilometro eta 200 metro dauzkana, tunel bat eta itxi eta bestea itxi eta han ezin dena inor sartu poliziaren kontrolpean".

Bi goi helburu

Bi helbururekin argitaratu dutela liburua, zehaztu zuen Aristik: "Bertsiio ofizialaren ondoan bestelako bertsiioa, alternatiboa ezarri nahi dugu. Zertarako? Egia jakiteko, eta nik uste hurbildu garela dezentee, errealtatearen izen jakitera. Corcuerearen testua fikzioa hutsa da dena. Gurea errealtate hutsa da, ia dena, asko hurbildu baizik gertakizunetara. Batetik egia bilatu nahi genuen, eta horretan saiatu gara gure ahalmenaren arabera. Ahaztu gabe informazioa guztia estatuak daukala kutxa batean gordeta, eta nahi duen arte atera gabe edukiko duela. Eta bestetik, nahi dugu etorkizuneko historialariek eduki ditzaten bi informazio iturri hauek, eta gero eurek erabakiko dute kasu honi buruz idazterakoan, ze ondorio ateratzen".



Pako Aristik lagungarri izan du Oñatik Gure Bazterrak kultur elkarrekin egindako ikerketa *"Irunberri, 1990: Arroiaren negarra"* liburua idazteko

Epilogo: Zuzenbide Estatuaren urraketa

Donostiako aurkezpenean *Irunberri, 1990: Arroiaren negarra* liburua laburtzen duen bederatzia orrialdeko testuari epilogo jarri zion Aristik, aurkezpen ekitaldiari amaiera emateko. "Ez da ETA historia honen gaia. Ezta Guardia Zibila ere. Historia honen gaia Zuzenbide Estatu da. Historia honetan kontatzen da estatuak ez zuela hiritar batzuk babesten jakin: edo ez zuten nahi izan, edo ezin izan zuten. Hiritar hauek atxilotu egin behar zituzten, epailearen aurrera eramane, eta, hala ebaztuz gero, ezarritako kondena bete".

Zuzenbide Estatuak unibertsala behar duela izan aldarrikatu zuen Aristik: "hala behar du izan ezarritako dagoen lurraldeko biztanle guztientzat. Hor datza bere zilegatasuna. Ezin du diskriminaziorik egin pertsonen artean, bakoitzak duen historialaren arabera. Ezin du esan: hau homosexuala da, hau ijitoa, hau terrorista, ez diot legea aplikatuko. Unibertsala izan behar du, baita Estatuaren aurka oldartzen direnekin ere. Ez bazaa denie aplikatzen, desafio egin diotenak eliminatzen hasten bada Zuzenbidezko Estatu izateari uzten dio. Eta Irunberri Zuzenbide Estatu desageratu egin zen hogei orduz. Ikusi izan dira exekuzioak gero tiroketa gisan mozortuak, baina Irunberri pauso bat gehiago eman zuten, biktimak euren buruen biktimario bihurtuz".

Konbikzioak aski ez eke, ikerketaren premiara

Irunberriko gertakariaren haritik ikerketan parte hartu duen Gure Bazterrak elkarteeko Ander Lizarralde ere hartu zuten hitza Mixelenan. Oñatiko gaztetxean erroak dituen Kultur elkartea da Gure Bazterrak. Orain arte, herriko ondarea baserri basterri bitzen aritu da batetik, eta azken aldiari, Oñatiko euskararen hiztegia lantzen ari da.

Aldi berean, elkartea Irunberriko gertaerak jorratzeari ekin zion orain urte batzuk. "Suizidio kolektiboaren bertsiio ofiziala inoiz ez dugu sinetsi ez ofatziarrok, ez andoaindarrek, ezta euskal herritarrek ere 33 urte hauetan. Konbikzio osoa zian dugu ETAKideak atzeman, torturatu eta hil egin zituztela. Baina aurreste hori frogatu gabe ez goaz inora, eta horregatik, ikerketa abian jartzea erabaki genuen, liburua osatzeko asmoz. Une horretara iritsita, gai zaila zela eta informazio asko zegozela eta gure ahalmenetik harantzako zergelara egitasmoa. Eta horrela egin genuen haremara Pako Aristirekin. Eskertuta gaude benetan Aristirekin buru belarri sartu baita gaiarekin".



Lizarralde, Garaialde, Ansti eta Razquin, Mixelena kulturgunen egindako aurkezpenean

Egitarako eta justiziarako eskubidea, guztientzat

Pilar Garaialde mintzatu zen Mixelena Kulturgunen egindako aurkezpenean, Egjari Zor Fundazioa ordekatuz. Euskal Herriari ofizialki bi biktima mota daudela gogoratuz ekin zion mintzaldiari. "Indarkeria zehatz baten biktimiek dagokien aitorza ofiziala jaso zuten, eta legeak ematen dizkien eskubideak erabiltzeko izan dituzte. Estatuak eragindako indarkeriaren biktimen ordea, abiapurua oso bestelakoa da. Urte akotako ukapenaren ondoren, egin zigutenaren egin izan ziren. Haiek bezala, hamamaka kasuak izan dira ofizialki aitortuak, bizi zeko eskubidearen urraketen biktima gisa. Dagoeneko, ehundaka giza poliziak, ertzaintzak, guardia zibilak, eskuin muturrak, Triple Ak edo BVEk eragindako giza eskubideen urraketen biktima gisa ofizialki aitortuak, jasandako torturak edo zauri larriengatik".

Bereziketanrik gabeko egia eta justizia guztientzat aldarrikatu zuen Garaialdek, "Giza eskubideen arloko nazioarteko legegadiak eta egia jakiteko nazioarteko zuzenbideak, ez dute bereizketarik egingen eskubide horiek urratzen dituen indarkeriaren jatorriaren arabera, ezta indarkeria hori jasan zuten pertsonen egoeraren arabera ere. Berdina da guztientzat".

[POLITIKA](#) [ANDOAIN](#)

Erlazionatuak



Pako Aristi, "Irunberri, 1990: Arroiaren negarra" liburua aurkezpenean
Xabier Lasa, apir 25, 15:19 [ANDOAIN](#)



Razquin, Garaialde eta Lizarralde, "Irunberri, 1990: Arroiaren negarra" liburua aurkezpenean
Xabier Lasa, apir 25, 15:18 [ANDOAIN](#)

[AIURRI hedabideak eskualdeko nortasun hitzak jaso eta zabaltzen ditu. Harpidedun eginda, tokiko albisteak euskaraz lantzen dituen komunikabidea babesteko duzu.](#)
[Egin AIURRIkide!](#)

[Erantzun](#)



Ikusienak



Susana Arregiren eta Jon Lizarralderen heriotzak argitu nahian
Xabier Lasa, apir 25, 15:19 [ANDOAIN](#)



Andoaingo hautes-zerrendak argitaratu dira Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean
Jon Ander Ubede, apir 26, 11:32 [ANDOAIN](#)



Urkik euskal dantzen erakustaldi ederra egin zuten Basteron
Xabier Lasa, apir 24, 19:16 [ANDOAIN](#)



Elkarrekin Podemos koalizioak hautes-zerrenda aurkeztuko du Urrietan
Jon Ander Ubede, apir 25, 19:23 [URNIETA](#)



Karpa eta txosnak muntatzen hasi dira Bekoplazan
[SANTAKRUTZAK 2023](#)
Alain, apir 25, 12:24 [ANDOAIN](#)



Auzoetako Jai Batzordeetako kideak izango dira auzoetako pregoilariak
[SANTAKRUTZAK 2023](#)
Alain, apir 26, 10:24 [ANDOAIN](#)

Alurri.eus - Erroitz BM

Arantzibia plaza, 4-5 beheia | ANDOAIN

Tel.: 943 300 732 | Faxa: 943 300 731

andoain@alurri.eus | idazkaritza@alurri.eus

Codesyntaxek garatua



[HONI BURUZ](#) [LEGE OHARRA](#) [PUBLIZTATEA](#) [ARALAK](#) [HARREMANETARAKO](#) [RSS](#)



TOKIKOM

Gertuko informazioa, euskaraz

[AIARALDEA](#) [AIKOR](#) [AIURRI](#) [ALEA](#) [AMEZTI](#) [ANBOTO](#) [ANTXETA](#) [ATARIA](#) [BALEIKE](#) [BARREN](#) [BEGITU](#) [DEUSTUALDEA](#) [PREST](#)

[ERLO TELEBISTA](#) [ERRAN](#) [EUSKALERRIA](#) [IRRATIA](#) [GEURIA](#) [GOIENA](#) [GOIERRI](#) [TELEBISTA](#) [GUAJAKE](#) [HIRUKA](#) [KARKARA](#) [KRONIKA](#)

[MAILOPE](#) [MAXIXATZEN](#) [NOAUA](#) [OZMENDI](#) [TELEBISTA](#) [PLEAINTXIA](#) [TXINTXARRI](#) [URIOLA](#) [UZTARRIA](#) [28 KANALA](#)

Gurean [Plazanbazar](#) [Tt@p](#)

Tokikom publicitatea